

Jaioko dira berriak

Jon, Josuren seme, agur:

Hildakoei idatzitako gutunak bizi garenok irakurtzen ditugu. Eta jaioko zaretenek ere ezin-go dituzue, zuei bidalitakoak, berehalakoan irakurri. Lerro hauetara gerturatzen bahaiz ere, noizbait, denboraren distantziaz, zail izango zaik hitz hauok beren neurrian dastatzea. Pentsa ezak orduan, lerrok ez hindutela hi helburu. Zendu zenari eman gabe utzitako laztan bat, berari eman ezinean, hemen, lur honetan bizia emandako kimuari eskaintzea zela asmoa. Bizitza bait da ondare, eta hik baldin badakik ere, heriotzeari —etsaiari— egindako engainu izkutu bat bezala jaioko haiz, Jon. Sumatua zuenaren aurrean, heriotzeari trampa eginez, geroari utzitako hazia.

Hiri eta lagunoi hildakoaren itzala luzatzea dagokigu. Bizi dadin gerora ere. Bizi erazi egin behar ditugu eta, gure hilak, etsaiaren ahaztearekin deman.

Elenaren sabela erditzeaz daukak, motel. Hiri bizi nahia ez duk honez gero amaren larru tenkatupean kabitzen. Atzo bertan, denon ezintasunaren erdian tinko, aspaldidanik hezitako adore harrigarria erakutsiz, erabaki irmoek dakarten indarrez zebilen hire ama. Hik betetako sabela doluminak zurrupatutako begizuloekin egiten zuen kontraste. Laister irten beharko duk. Eta ea negarrak datozenerako prest hagoen.

Ez hadi atzeratu, matrako hori. Hire aita ere, azken ordura arte, urrats zailenari aurre egiteko gai izan zen eta. Bera ere enbor oneko ezpala.

Hik beste era batetan ezagutu beharko duk hura. Arreta bizian egon hadi eta hire amak higan utziko sustraien artean, bat batean grina bizia nabarmentzen bazaik ere hire barnean, harena duk hori, Jon. Egora zailenetan irribarre samur ironiaz betetako bat luzatzen bazaik hire ezpainetan, harena izanen duk hori ere, Jon. Serenitatea eta alaitasuna kutsatzea lortu baldin badik, zorte apartekoa hirea, Jon. Eta irabaziko dugun bere konbentzimendu horren beharrik, agian, nork daki, ez duk izango.

Ez kezka, ez duk hik altxor hori gordetzeko ardura bakarra. Bere uztia ez duk higan bakarrik mugatuko. Belarrondoan jotako tiro hark altxatu duen uhin beltz horrek gure Herriko lau haizetara zabaldu dik gorrotoa. Gorroto horrek ere bazekik Herri honek behar duen etorkizuna ereiten.

Ez ezak ahaztu hire aita ekintza militarrez erahil dutenik. Herri hau —ez hire aita— gorroto dutenek hil dutela. Eta hire aitaren zoritxarra, denok dakiguna, Espainiaren bihotzetik auzpegira ozen esateko ausardia izatea izan de-



la: Herri honek bizitzeko aukerarik badu, bere eskubideetan oinarritutako pakea lortzean dagoela. Bestela gerla jarraitzeko beste aukerarik ez diotela uzten.

Espainia Inperiala buruan daukatenez ezin irentsi ahal omen diate Herri honen superbibentzia... Eta guk ezin irentsi diagu gure Herriaren heriotzea.

Aljeriako elkar hizketen haustura bortxatu zutenak, haiak berak, dirateke ekintza honekin hurrengo elkar hizketak baldintzatu nahi izan dituztenak. Eta hire aita erahil diate pake mezuz zahoanean.

Hik ez ezak ahaztu gure Herriaren aurka zuzendutako ekintza militar bat izan dela hire aita

zerraldo utzi duena. Eta bertako asko penaz baino beldurrez isildu direla.

Jon, jaioko badu berehala. Elenaren sabelean kulunkatuz goxo hagoela bazekiagu. Beharbada amaren nega barneratuek gazitu dizkiate hire inguruko ur epelak. Agian nabaritu dituk dagoeneko. Agian, arreta jarri baduk, entzungo hituen bihotz taupadaren bestekaldetik jende onen babes oihuak. Herria duk, Jon, hire inguruan dagoena.

Alai eta harro, Jon, hire aitaren errautesak Euskal Herrian barrera haizetatzen ditugunean. Jadantik urrutitik somatu zaizkian irrirtziak, urratsez urrats, Askatasuna zekartek.

JOXEMI ZUMALABE